

► Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. - + 34 943481975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus
Aiete pasealekua, 65 20009 Donostia / San Sebastián
www.zinemaetagitagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus
► Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus
Erregina Erregeordea, 8 20003 Donostia / San Sebastián

HAUR ETA GAZTEEK GIZA ESKUBIDEEN INGURUAN EZTABAIDA DEZATEN GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAK HIRU FILM ESKAINIKO DITU

Hezkuntza zentroei zuzendutako goizeko saioetan, “Ploey – Bakarrik hegan inoiz ez”, “Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa” eta “Aurora” pelikulak proiektatuko dira. Izen emate epea zabalik da.

Ploey – Bakarrik hegan inoiz ez (2018), **Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa** (2018) eta **Aurora** (2016) filmen proiektzioekin, ikasgelan giza eskubideekin lotutako gaietan sakontzea lortu nahi da.

Pelikula hauek eskaintzearen helburua da Donostiako ikasleek eskolan giza eskubideen inguruan eztabaida sakon dezaten. Horregatik, aurreko urteetan bezala, hiru pelikula hauek **Ikertzek** prestatutako gida didaktiko batekin osatuko dira. Era honetan, 17. edizio honetarako hautatutako pelikuletan aipatzen diren gaiak zinemara joan aurretik eta ondotik, gelan landu ahal izango dute.

Iaz, **5.000 ikasle** baino gehiagok parte hartu zuten.

Euskaraz izango dira emanaldi guztiak eta aipatutako gida didaktikoei esker, haurrak adiskidetasunaz edota lan taldearen garrantziaz kontzientziatu eta sentsibilizatu ahal izango dira.

Victoria Eugenia Antzokian goizeko 10:00etan izango dira saioak, eta ikasleek euro bana ordaindu beharko dute saiora joateko.

Proiektzio egutegia honako hau da:

Ploey – Bakarrik hegan inoiz ez (82 min.)

Noiz: Apirilak 2, 3 eta 4

Adina: 6 eta 9 urte artean

Laburpena: Urre-txirri gazte baten historia azaltzen digu. Hegan ikasteko arazoak ditu; horregatik, negua heltzean, ezin du bere familiakoekin migrazioa egin klima epelagoko toki batera. Bere adiskideek lagunduta, aurrera egin ahal izango du etsaiz jositako mundu batean, benetako heroi bilakatu arte.

Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa (83 min.)

Noiz: Apirilak 10, 11 eta 12

Adina: 10 eta 12 urte artean

Laburpena: Leo Da Vinci, burua ideiaz gainezka daukan margolari eta asmatzaile gaztea, Mona Lisarekin maitementzen da. Lisak sute batean etxea galduko du, eta Leok, hari lagundu nahian, abentura zoro eta zirraragarri bati ekingo dio. Hala, aspaldi-aspaldi Montecristo uhartetik hurbil hondoraturiko itsasontzi pirata baten bila abiatu, eta itsasontziko altxor izugarria aurkitzen saiatuko da. Berak uste du altxor horri esker konponduko dituela Lisaren arazoak, eta biek batera hasiko dute bidaia, lagunekin elkar hartuta, jakinik ere bidaia ez dela izango batere samurra.

Aurora (90 min.)

Noiz: Apirilak 5

Adina: 13 eta 16 urte artean.

13 urteko neskato bihurriaren erretratua egiten duen **Aurora** (*Jamais contente*) filmak Berlinaleko Jury Génération-ek eskaintako eta Europako Zinemako Gazte Epaimahaiak Europako pelikularik onenari emandako sariak irabazi ditu.

Laburpena: Inguruneari, familiari, mutilei, frantseseko irakasleari eta bere buruari ere, aurre egiteko modu berezia dauka hamahiru urteko Aurorak. Desafiatzaile eta bihurria, beste neurri bateko arazoak eta erronkak eskaintzen dizkion etapa berriaren mugak miatzen dizkio Aurorak. Gaizki portatzen delako gurasoek barnetegira eraman nahi dute, bere lagunik onenak bakarrik uzten du, eta aldi berean berak hainbeste miresten duen mutilak bere rock taldean kantatzeko eskaintza egiten dio.

► Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. - + 34 943481975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus
Aiete pasealekua, 65 20009 Donostia / San Sebastián
www.zinemaetagitzaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus
► Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus
Erregina Erregeordea, 8 20003 Donostia / San Sebastián

TRES PELÍCULAS PARA SENSIBILIZAR AL PÚBLICO INFANTIL EN EL RESPETO A LOS DERECHOS HUMANOS

En las sesiones matinales del Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián se van a proyectar las películas “Ploey – Bakarrik hegan inoiz ez”, “Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa” y Aurora. Ya está abierto el plazo de inscripción para los colegios que quieran asistir.

Con la proyección de **Ploey – Bakarrik hegan inoiz ez** (2018), **Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa** (2018) y **Aurora** (2016) se pretende que el alumnado donostiarra pueda profundizar en el aula sobre distintos temas relacionados con los derechos humanos.

Por ello, como ya se hizo en años anteriores, cada una de estas tres cintas irá acompañada de una guía didáctica elaborada por **Ikertze** con la que trabajar, tanto antes como después de ir al cine, los temas tratados en las películas seleccionadas para esta 17ª edición.

El pasado año participaron más de **5.000 escolares**.

Todas las proyecciones serán en **euskera** y gracias a las guías didácticas, niños y niñas podrán sensibilizarse y concienciarse en torno a diferentes valores como son la amistad o el trabajo en equipo.

Las películas se van a exhibir a las 10 de la mañana en el **Teatro Victoria Eugenia** de Donostia y el precio por persona será de 1 euro.

Este es el calendario de proyecciones previsto:

Ploey – Bakarrik hegan inoiz ez (83 min)

Fechas: 2, 3 y 4 de abril

Edad: De 6 a 9 años

Sinopsis: Cuenta la historia de un joven chorlito, Ploey, que tiene problemas para aprender a volar, con lo cual, con la llegada del invierno no puede migrar con su familia a un lugar con un clima más cálido. Con ayuda será capaz de sobrevivir en un mundo lleno de enemigos y convertirse en un auténtico héroe.

Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa (82 min)

Fechas: 10, 11 y 12 de abril

Edad: De 10 a 12 años

Sinopsis: Leo Da Vinci es un joven pintor e inventor desbordante de ideas que se enamora de Mona Lisa. Tras un incendio, Lisa lo pierde todo e intentando ayudarlo, Leo comienza una loca aventura. Así, emprenden la búsqueda de un barco pirata hundido cerca de la isla de Montecristo y el tesoro que en él se esconde. Creyendo que dar con el tesoro solucionará los problemas de Lisa, emprenden el viaje junto a sus amistades aun sabiendo que no será fácil.

Aurora (90 min)

Fecha: 5 de abril

Edad: De 13 a 16 años

Aurora (*Jamais contente*) ganó el Oso de Cristal del Jury Génération en la Berlinale y el premio a la Mejor Película Europea del Jurado Joven de los Premios del Cine Europeo.

Sinopsis: Con trece años, Aurora tiene una forma peculiar de observar y enfrentarse con su entorno; su familia, los chicos, su profesor de francés y también con ella misma. Desafiante y rebelde, Aurora explora los límites de una nueva etapa que le ofrece retos y problemas de otra magnitud. Su padre y su madre se plantean llevarla a un internado por su mal comportamiento y su mejor amiga la abandona; pero, a su vez, el chico que tanto admira le ofrece cantar en su banda de rock.